

FAMILIAREN EGUNA

Urtero-urtero, egun zinez berezi
bat ospatzen da gero
eta etxe eta eskola gehiagotan:
Familiaren Eguna!

Zatoz gure eskola ezagutzera;
bertan Xiami, Oscar, Rita, Jon, Saida, Nikita,
Alexis, Maddi, Aritz eta Carolinaren
familiak topatuko dituzu.

*Familia guztientzako egun bat.
Familia guztientzako liburu bat.*



FAMILIAREN EGUNA



Luis Amavisca Marisa Morea



nubeOCHO

ISBN: 978-84-19607-99-7 www.nubeocho.com




9 788419 607997


nubeOCHO

Luis Amavisca

Marisa Morea



1993ko irailean, Nazio Batuen Batzar
Nagusiak Familiaren Egun gisa
izendatu zuen maiatzaren 15a.

*Nire seme Juan-i. Maite zaitut, txiki.
Óscar, Lourdes eta izeba Elia-ri.
Rocío, Ibai, Naia, Tristán, Juan eta María-ri.
Errespetuan eta maitasunaren sinesten duten familia guztiei.*

Luis Amavisca

*Nire familiari. Oraindik hemen daudenei,
jada joan direnei. Bizitzak egindako opari zaretenoi,
izan jaiotzetik zein bidean zehar.*

Marisa Morea

FAMILIAREN EGUNA

Luis Amavisca Marisa Morea



É

É G A L I T È

Familiaren Eguna

Egalité bilduma

© testuarena: Luis Amavisca, 2023

© irudiena: Marisa Morea, 2023

© argitalpenarena: NubeOcho, 2023

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2023

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *El Día de la Familia*


Lehen argitaraldia: Urria, 2023

ISBN: 978-84-19607-99-7

Legezko Gordailua: M-21836-2023

Txinan inprimatua nazioarteko lanbide-arauak errespetatuz.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreproduktzioa.


nubeOCHO

–Haurrak, igandean Familiaren Eguna ospatzen da.
Denok gure familiaren marrazki bat egingo dugu,
etxekoei izugarri gustatuko zaie.

Ea ba, artista txikiok, lanean hasteko prest?



Baa aai!



—Andereño, zergatik ospatzen da Familiaren Eguna?

—Bada, Aritz, maite ditugunengatik sentitzen dugun maitasuna elkarrekin ospatzea garrantzitsua delako. Ea, nork du gustoko "maite zaitut" esatea?



—Niri asko gustatzen zait
amatxori maite dudala esatea.
—Zein polita, Maddi!



—Eta zuk, Rita?
—Nik amatxo eta
aitatxori esaten diet!



—Eta zuri, Nikita?
—Nik nire amonari
esaten diot, bera
da nire familia.



—Andereño, niri besarkada bidez esatea gustatzen
zait! Izugarri gustatzen zaizkit besarkadak!
—Ederra, Oscar!

—Andereño, nire lehengusu Julenek esan dit bere eskolan Aitaren Eguna ospatzen dutela.

—Rita, gure eskolan ez dugu Amaren edo Aitaren egunik ospatzen, Familiaren Eguna baizik. Familia guztiak ez dira berdinak, eta denek merezi dute haien eguna.



—Hala da, andereño. Haur askok ez dute aitarik, Aritz, Oscar, Alexis edo Xiamik esaterako.

Eta beste batzuek, aldiz, ez dute amarik, Jon edo Carolinak, adibidez.



—Noski. Nire familia
nire amatxo eta nire
aiton-amonak dira.
Eta noski, nire katua.

—Hori da, Oscar!



—Nire familia nire
ahizpa Carmen eta nire
aiton-amonak dira.

—Zoragarria, Alexis!



—Nik maite dut bi
amatxo izatea!

—Zein familia ederra, Aritz!



—Nik bi aitatxo ditut,
izugarri maite nautenak.
Baita nik haiek ere!